

1/2018 AKTA  
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK  
OTSAILAREN 13an EGINDAKO BILERA

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA:**

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

**1. PRESIDENTEORDEA:**

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

**BATZORDEKIDEAK:**

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.  
Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.

Arturo Golaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*.

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*.

Yolanda González García and., *Vianako alkatea*

Ángel Obanos Galar jn., *Artikako Kontzejuko burua*.

Luis Alfonso Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea*.

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.

David Alvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea*.

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*.

**Ezin etorria adierazi dute:**

Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea*

Ur Algeró Chivite jn., *Aresoko alkatea*.

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.

Koldo Leoz Garciandia jn., *Lizarrako alkatea*.

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko otsailaren hamahiruan, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuen egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

**GAI-ZERREDA**

- 1.- Aurreko bilkuretako aktak onestea.
- 2.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3.- Ordezkariek izendatzea.
- 4.- Hiri eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen 2017ko deialdia.
- 5.- Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.
- 6.- Lankidetzaren hitzarmena saharar herriarekin.
- 7.- Informazioa Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolatzearen Foru Legearen aurreproiektuari buruz.
- 8.- Presidentearen informazioa.
- 9.- Galde-eskeak

**1. PUNTUA. Aurreko bilkuretako aktak onestea**

Deialdiarekin batera igorrita azaroaren 21eko bilkura arruntaren aktaren kopia eta azaroaren 28ko bilkura bereziaren aktarena, aldezturik irakurri beharrik gabe, presidentea jaunak galdetu du inork oharrik egin nahi dion horietako lehenari.

Inork ez du oharrik egin.

Bertaratutako gehiengoarekin,

**ERABAKI DA:**

2017ko azaroaren 21ean egin bilkuraren akta onestea.

Ondoren, galdetu du inork oharrik egin nahi duen igorritako bigarren aktaren inguruan.

Inork ez du oharrik egin.

## **ERABAKI DA.**

2017ko azaroaren 28an egin bilkuraren akta onestea.

## **2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.**

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua (2017/11/27).** Gardentasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren berri eman da.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2017/12/01).** Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzeko aurreproiektuaren berri eta Parte-hartzeko Funttsaren Zenbatekoari eta Banaketari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren berri eman da.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2017/12/12).** CANASA tarifaren kreditu berezia esleitzeko Foru Legearen aurreproiektuaren berri eman da.
- **Nafarroako Kirolaren Kontseilua. (2017/12/12).** Jakinarazi da zer egin den Kontseiluko batzordeetan eta zer aurreikusten den Nafarroako Aurrekontu Orokorrei dagokienez.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2017/12/14).** Gardentasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren berri eta Egun baliogabeak deklaratzeko Foru Dekretuaren proiektuaren berri eman da.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua. (2017/12/18).** Jendaurreko informazioa eskuratzeari buruz aurkeztutako zenbait erreklamazio ebatzi dira.
- **Lurraldea Antolatzeko Batzordea. (2017/12/19).** Batzorde horretako ordezkariak nabarmendu du alde aurreko txostena egin zaiola Doneztebetik Irurtzunera bizikletez joateko ibilbide berri bat egokitzekeo proiektua Udalez gaindiko Proiektu Sektorial izendatzeari.
- **NILSAko Administrazio Kontseilua. (2017/12/20).** Jarduteko programari eta 2018ko aurrekontuaren berri eman da (Plan Estrategikoa). NILSAko zuzendaritza berregituratzea eta langileria.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua. (2018/01/29).** Batzorde horretako ordezkariak informazioa igorri du bilkuran landutako gai buruz. Hauek nabarmendu ditu: Arrantzari buruzko Foru Aginduaren txostena, 2018koa, eta Ingurumenaren gaineko ondorioak dituzten jardueri buruzko Foru Legearen proiektua.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua. (2018/01/31).** Udaberriko jardunaldien egitaraua zehaztu da; hezkuntzari eta irakaskuntzarako gune buruzkoak izanen dira eta martxoaren 5ean, 6an, 7an eta 8an egingen dira.

- **Bizikleten Lan Taldea (G1).(2018/02/06).** Aditzera eman da talde horretan “esparru ordenantza” bat prestatu dela, bizikletaren erabilera arautu nahi duten udalerrri guztiek erabiltzeko eta dagoeneko ordenantza duten guztien araudia bateratzeko.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2018/02/07).** Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren berri eta 0-3 ikastetxeei buruzko Foru Dekretuko aldaketaren berri eman da.

Garbayo andreak jakinarazi du Babes Zibilaren Batzorde bat ere egin zela, non babes zibilerako zenbait plan aurkeztu baitziren, eta hartaz ez dagoela ezer jasota.

**ERABAKI DA:** Jakinaren gainean daudela adieraztea.

### **3. PUNTUA. Sektoreko batzordeetako eta kontseiluetako ordezkariak izendatzea.**

Nafarroako Futbol Federazioak eskatu du ordezkari bat izendatzea, Gizabide Batzordean parte hartzeko; xede horrekin, Federazioko teknikari den Fermín Cabasés Hita izendatzea proposatu da.

**ERABAKI DA:**

Izendapena adierazitako moduan onestea.

### **4. PUNTUA. Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2017ko deialdiaren ebazpena.**

Puntu honetan, Moriones jaunak hartu du hitza, deialdian aurreikusitako batzordeko kidea baita, eta Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2017ko deialdiaren ebazpena azaldu du, Batzordearen deialdiarekin batera igorri dena.

Aurtengo berritasunen artean, nabarmentzen da diru-esleipena handiagoa dela, 90.000 eurokoa baita, eta deialdia aldatu dela, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.500 eurokoa delako, entitate eskatzaile guztiek jaso ahal dezaten laguntza. Hori dela eta, norgehiagokako araubidean zehaztu da norberak jaso beharreko zenbatekoa; horretarako, emandako diru guztia eskatutako gehieneko diru-laguntza guztiekin zatituta ateratzen den portzentajea aplikatu da, %83,32 alegia.

Jakinarazi du 52 eskaera aurkeztu direla.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

**ERABAKI DA:**

Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2017ko deialdiaren ebazpena onestea, akta honen eranskineko txostenean jasotzen den moduan.

## **5. PUNTUA. Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.**

Presidenteak proposatu du Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.

Hitza idazkari nagusiari eman dio, eta horrek azaldu du zein diren hitzarmenaren nondik norakoak eta zergatik komeni den beste urtebeterako luzatzea, ezin izan baita beste konponbide bat bilatu toki entitateak profitatu daitezten hitzarmenak eskaintzen dituen deskontuez eta fakturazio baldintzez.

Azaldu da gestioak egin direla toki entitateak sar daitezten Nafarroako Gobernuak Correosekin duen esparru akordioaren barnean, zein luzatu berri baita 2018ra.

Ildo horretan, adierazi da lanean jarraituko dugula arren eta toki entitateek, izan zenbatekoa dela-eta zerbitzua lizitatu behar dutenak, izan behar ez dutenak, baldintza egokietan jaso dezaten zerbitzua.

Gaia Batzorde Betearazlearen onspenera jarrita,

### **ERABAKI DA:**

Aipatu hitzarmenaren beste luzapen berezi bat eskatzea Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos SAri, hitzarmenaren eranskinetan zehaztutako baldintzetan jarrai dezan posta eta telegrafia zerbitzuak ematen, 2018ko abenduaren 31ra arte, helburua izanik toki entitateek modua izatea esleipen prozeduren esleipenak gauzatzeko, Posta Zerbitzuari buruzko abenduaren 43/2010 Legeak indarra hartu ondoren, Europako zuzenbidetik eratorritako betebeharrarekin eta kontratazioari buruzko araudiarekin bat.

## **6. PUNTUA. Lankidetzaren protokoloa saharar herriarekin.**

Presidenteak proposatu du saharar herriarekiko lankidetzaren protokoloa onestea, deialdiarekin batera igorri dena.

Azalduenez, Nafarroako saharar ordezkariak aurreko Batzordean jakinarazi zuen moduan, bi alderdiek egokitzat jotzen dituzten eta hitzartzen dituzten jarduketak egiteaz gain, protokoloak urteko konpromiso bat ere jasotzen du, 24.000 eurokoa gehienez, garapenerako proiektuak finantzatzeko, GGKEek Nafarroako Garapen Lankidetzarako Funtzaren urteko deialdian aurkezten dituzten artean, baldin eta deialdi horretako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, bakeko oporraldien programen barnean 4 saharar ume ekartzeko konpromisoa hartzen du, 2.000 euroko zenbatekoarekin gehienez ere.

### **ERABAKI DA:**

Saharar Herriarekin lankidetzaren aritzeko protokoloa onestea NUKFren eta Fronte Polisarioren artean (Saguia El-Hamra eta Río de Oro askatzeko Herri Frontea). Akta honetara erantsita dago.

## **7. PUNTUA.- Informazioa Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzearen Foru Legearen aurreproiektuari buruz.**

Presidenteak aurreproiektu honen gainean egindako jarduketan berri eman du. Azaldu du Toki Administrazioaren Departamentuak Toki Administrazioa berrantolatzearen Foru Legearen aurreproiektua igorri zigula eta urtarrilaren 9ra arte jendaurrean egon zela. Aurreikusita zegoen moduan, talde zuzentzailea eta eztabaidatzekoa martxan jarri ziren eta hiru lan saio egin zituzten aurreproiektua aztertzeke eta prozesu parte-hartzailean adostutako proposamenekin erkatzeke, horretan oinarritutako txosten bat prestatzearen, non NUKFko organoek beren iritzia emanen baitute. Nolanahi ere den, bilkura horiek egin ondoan, beste aurreproiektu bat igorri zitzaigun, zenbait aldaketa zekartzana, eta, adierazi zitzaigunez, oraindik ere aldaketa gehiago izan zitzaiekena. Hori dela-eta ez da oraindik azken txostena prestatu; izan ere, behin betiko aurreproiektua noiz igorriko zain gaude.

## **ERABAKI DA:**

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

## **8. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.**

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Bilkura bat (azaroak 28) Gizarte Hezitzaileen Elkargoko idazkariarekin. Jakinarazi ziguten lanean ari direla gizarte hezitzailearen lanbidea erregularizatuko duen lege bat onesteko. Beren lanbidearen alde eginda, salatu zuten titulazio hori ez dutenak kontratatzen dituztela oso maiz. Aurkeztu ziguten txosten batean, asmo horren aldeko mozio asko jasota zeuden.
- Bilkura bat 1500 biztanletik gorako udalerrietako bitarteko idazkarien taldearekin. Helarazi ziguten zer pentsatzen zuten Toki Administrazioa berrantolatzearen aurreproiektuaren gaineko aurreikuspenei buruz eta adierazi zuten Toki Administrazioaren zuzendari nagusiak konpromisoa hartu duela lan talde bat sortzeke haien ideiak entzutearren. Eskatu zuten NUKF ere egotea talde horretan. Lehendabiziko bilkura heldu den 14an izanen da.
- Eskara egin da ondare immatrikulatua berreskuratzeko lan talde bat sortzeke. Helburu horrekin eratutako udal batzarreko mahaiko kideek aurkeztu dute eskaera, zeinak toki entitateen ordezkariak baitira.  
Presidenteak adierazi zuen ordezkari horiek osatuko luketela taldea hasiera batean, baina zabalik geldituko litzatekeela horretan parte hartzeke aukera izan zezaten interesa duten toki entitate guztiek. Echeverría jaunak adierazi du talde horretan parte hartu nahi duela.  
Zehaztu denez, Unai Lakok koordinatuko du taldea, Batzorde Betearazleko kidea eta Batzarreko burua den aldetik.
- Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak proposamen bat egin du hitzarmen bat sinatzeko, zenbait udalekin izandako elkarlana formalizatzearen eta zerbitzu hori hurbiltzearen horren premia duten haurren herrietara. Jakinarazi da aztertzen ari dela komeni den hitzarmen eredu bat edo hitzarmen esparru bat egitea, nahi duten toki entitate guztiek hari hel diezaizoten.
- Bilkura bat egin da Unijepol Navarrako kideekin gaur bertan, zeina udaltzaingoetako agintari eta nagusi batzuek osatzen baitute. Bere burua eskaini dute guk kontuan izan ditzagun proiektu arauemaileetan eta gisa horretako gaietan aholku emateke orduan, betiere halakoetan gainean berriazko ezagutza teknikorik badute. Aurkezpen gutun bat igorriko digute.

- Hurrengo Foru Batzordean testu hauei egin beharko zaie txostena: Ingurumen Esku-hartzeari buruzko Foru Legea eta Igerilekuen baldintzei buruzko Foru Dekretua. Azken horri dagokionez, adierazi da Batzorde Betearazleko kide guztiei helaraziko zaiela, balora dezaten horrek nola ukitzen dituen norberaren instalazioak, bestelako aukerak aztertzeko.
- Nafarroako Kontratu Publikoen Auzitegiko kidea eta ordezkoa izendatzea, baja bat izan delako. Jakinarazi da Kontratazio Batzordeak abisua eman ziola NUKFri, izendatzeko proposamenik egin gogo bagenuen. Aditzera eman da ezen, ordeztu beharreko kidea Iruñeko Udalekoa zenez gero, udal horri galdetu ondoan María Gay Pobes proposatu dela, Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentziako letratua.
- Jardunaldi bat egingen da Nafarroako Memoria Historikoko Tokiei buruzko Foru Legearen aurreproiektua aurkezteko. Jardunaldi horren hedapena egin da NUKFren web-orriaren bitartez.

#### **ERABAKI DA:**

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

#### **9. PUNTUA- Galde-eskeak**

Goldaracena jaunak galdetu du nahitaezkoa ote den Europako araudi bat datuen babesaren gainean eta jakin nahi du NUKFtik zerbait egiten ahal den horren inguruan.

Idazkari nagusiak adierazi du hedapenerako jarduketak egin gogo direla, araudi horrek ekarritako aldaketen gaineko ezagutza zabaltzeko.

Garbayo andreak galdetu du zer jakiten den Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen tramitazioaren inguruan eta tresnarik ote dagoen estimazio kalkulurik egiteko motak ezartzearen gaineko udal zergari dagokionez.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.